



Liburu honek Bilboko Udalak antolatutako  
*Miguel de Unamuno XXI. Saiakera Lehiaketaren* euskarazko saria jaso du.



#### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Ogia eta zirkua**

Literatuaren zeremonia magikoa

Harkaitz Canoren *Neguko zirkuan*

Egilea / Autora: **Irati Jimenez**

Saila / Colección: Saiopaperak - Literatura, 34

ISBN / EAN: 978-84-9109-769-3

Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne - IVA incluído)

Orrri kopurua / N° páginas: 172

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 14 x 22,5 cm

Materia: Saiakera - Ensayo

#### Lana / La obra

Uharte sekretu batean edo loriazko hiriren batean dagoen altxorraren bila doazen abentureroen espiritu euforikoaz, horrela abiatzen da Irati Jimenez saiakera liluragarri eta ezohiko honetan literaturaren lurraldeetan barna, Harkaitz Canoren *Neguko Zirkua* ipuin-bilduman dagoen ezkutuko eleberriaren bila, literatura maite duten irakurle guztien gozamenerako. Intrigazko nobela baten gisara proposatutako analisi literarioa daukazue esku artean, gure ipuingintza garaikidean mugarri den liburu baten eta egile baten literaturaren bihotzera egingako bidaia harrigarria. *Ogia eta zirkua* honetan literaturaren ezagutza sakona islatzen duen akrobazia mirresgarria egin du Jimenezek, bere narratibazko lanetan erakutsitako estilo oparo eta dotoreari uko egin gabe. Eraitza, euskal literaturak eman duen saiakera literariorik berezietakoa duzue, irakurleak liburu batekin, liburu horretan dagoen liburuarekin eta literaturarekin berarekin maitemintzeko modukoa.

#### Egilea / La autora

**Irati Jimenezek** (Bermeo, 1977) kazetari gisa lan egin du prentsan, telebistan eta irratan. *Nabarra* aldizkariko azken zuzendaria izan zen eta komunikazio aholkularitzan eta Interneteko edukien sorkuntzan espezializatu da. *Bat, bi, Manchester* (Elkar, 2006) eleberri laburrarekin Augustin Zubikarai saria lortu zuen, *Laranja Azalaren Negarra* ipuinarekin Donostia Hiria, eta *Atsekabe zaitut* narrazio ilustratuarekin, Bizkaiko Liburuzainek ematen duten Farolillos de Papel saria. 2009an, Igartza Bekaren akzesita lortu zuen eta horri esker argitaratu zuen *Nora ez dakizun hori*, italierara, errusierara eta gaztelaniara itzulitako eleberria, eta 111 Akademiako sariaren irabazlea. Ipuinak eta pop kulturari buruzko saiakerak argitaratu ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, *Telezailak* (Txalaparta, 2011) eta *Orgasmus* (Txalaparta, 2010) moduko bildumetan.



9 788491 097693